

ARAUDIA

1. ZALDIBARKO XXIII. MENDI BIZIKLETA MARTXAn 16 urtetik gorako edozeinek hartu dezake parte. Martxa hau dohainik da.
2. Azaroaren 16an izango da bizikleta martxa. Goizeko 10:00tan irtengo da eta arratsaldeko 13:30etan izango da azken helmugaratzea. Irteera eta helmuga Zaldibarko udaletxeko plazan izango da.
3. Izen ematea udalatzeko plazan egingo da egun berean ,09:45ak baino lehenago edo online.
4. Bizikleta-martxa neutralizatua izango da, irteeratik antolakuntzako auto joan arte. Ezin daiteke autoa aurreratu.
5. "Zaldibarko mendi bizikleta martxa", bizikleta maite duten guztientzat antolatzen da eta izaera lasaia du, beraz, ez da lehiaketa bat. Txirrindulariek trafiko arauak errespetatuko dituzte.
6. Parte artzaileek bere gain hartzen dute esagutu eta onartzen dituztela ibilbidean zehar egon daitezkeen arriskuak, gehiena menditik baina baita trafikoari zabaldua dauden errepidetatik.
7. Ibilbidearen zenbait tokitan antolatzaileak egoteak ez du esan nahi trafikoa geldituta edo etenda dagoenik.
8. Kaskoaren erabilera derrigorrezkoa da
9. Alpaturiko arauak ez errespetatzeagatik sortu daitezkeen kalteak, antolatzaileek ez dituzte bere ardurapean hartuko.
10. Horrez gainera, txirrindulariak onartzen du osasunarentzat kaltegarri bihurtu litekeela kirol esfortzua.
11. Parte hartzaile guztiek aintzat hartu eta onartzen dute araudi hau eta bere edukia. Halaber, antolatzaileei inolako erreklamaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen dute. Era berean, antolatzaileek eskubide osoa dute araudia edota ibilbidea aldatzeko, hala behar izanez gero.

Zaldibarko Lagun Artea Txirrindulari Elkartea